




GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES DE GIPUZKOA

Batzarkide Talde Misto (ARALAR)
Grupo Juntero Mixto (ARALAR)



MAHAIARI

Rebeka Ubera Aranzetak, ARALAR taldearen batzarkideak, Gipuzkoako Batzar Nagusien Jardueraren Araudiari jarraiki, idatzi honen bidez, **Unai Romanok jasandako torturen artxibatzeari buruzko EZ – ARAUZKO PROPOSAMENA** aurkezten du Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Batzordean eztabaidatua izan dadin.

ZIOA

Unai Romanok torturatu zutela-eta egindako salaketen artxiboa eta Guardia Zibilak torturatua izan den pertsona baten kontra kereila aurkezteko erakutsi duen asmoa oso larritzat jotzen ditugu, torturatzailerik baliatzen duten inpunitate eremuak babestu besterik ez baitute egiten. Hori dela eta, euskal instituzioek erantzun ozen eta argia eman behar dutelakoan gaude, tortura praktikatzeko dutenek beren jardura oraingoz ondorio juridikorik ez duen arren, euskal gizarteak gogor arbuiatzen dituela jakin dezaten.

EZ ARAUZKO PROPOSAMENA

Gipuzkoako Batzar Nagusiek honoko hau adierazi nahi dute :

1. Beren elkartasuna adierazi nahi diote Unai Romano gazteari bere tortura salaketa artxibatua izan ondoren. Modu berean, erabaki honekiko ganbera honek duen desadostasuna azaldu nahi du.
2. Gogor kritikatzeko dute Guardia Zibilak hartutako erabakia, Unai Romanori salaketa faltsua egitea leporatzen dion salaketa ezartzekoa, alegia. Torturaren aurka bere esku dituen baliabide guztiak erabiltzen ez dituen estatuak erregulazio presuntzioa inkomunikatuari aplikatu behar dio, ez inkomunikazioa ezartzen duenari.



GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES DE GIPUZKOA

Batzarkide Talde Mistoa (ARALAR)
Grupo Juntero Mixto (ARALAR)

3. Berriro ere dei egiten diogu Espainiako estatuaren gobernuari tortura ahalbidetzen duten espazioak gainditzeko neurriak har ditzan, Nazio Batuetako Torturaren aurkako errelatoreak ezarritako bidetik.

4. Dei egiten diogu Espainiako estatuaren gobernuari Prozedura Kriminaleko Legea aldatzeko eta zehazki 520 bis artikulua bertan behera uzteko horixe baita inkomunikazioa ahalbidetzen duena.

5.- Gipuzkoako Batzar Nagusiek adierazpen hau Guardia Zibilaren Zuzendari Orokorrari zein Espainiako estatuaren Barne Ministroari helaraziko diete.

Donostia, 2006ko otsailak 8

Rebeke Ubera Aranzeta
ARALAR Batzarkide Taldea